

MARI DOMINGI

Anuntxi ARANA antropologoaren hitzaldia
Uztaritzen, 2023ko azaroaren 29an

1. MARI DOMINGI NONAHI

Mari Domingi Olentzerorekin, Baionako karriketan



Arespalditzako Mari Domingi

Denok ezagutzen dugu orain, Eguberriko pertsonaia da, baina jatorrian ez zuen zer ikusia Olentzerorekin. Orain hedatu da eta kasik ez da Olentzerorik Mari Domingi gabe.

Salbu salbuespenak: Aiaran eskutitzak biltzen hasia zen 2014an; 2021ean ibilaldian atera zen, lehen aldiz, Olentzero egin zuenak eskaturik eta 2022an bertakoek eskaturik ez da ibili. Gorabehera horiek adierazten dute pertsonaiaren inguruan sortu diren zalantzak.



2. NOIZ ETA NON HASI ZEN OLENTZERORI LOTZEN

Mari Domingiren lehen agerraldia Donostian izan zen 1994an, eta horren antolatzaile zen Josi Oiarbide Alustizak nola egin zuten azaldu zuen 2015eko abenduaren 24an facebook-en.

Lehen Mari Domingi

1994an, Donostia Antigua auzoko Bagera (euskaltzaleen elkartearen), haurren artean euskararen erabilera sustatzeko (...), Olentzerorekin (...) kabalgata moduko bat antolatzea (pentsatu zen) eta pertsonaia bat egun batzuk lehenago ikastetxez ikastetxe bidaltzea onartu zen (haurrak oraindik eskolatuak direnean). (...) Lasarten Xixuko pertsonaia ibiltzen zen, eta guk, abesti batean agertzen zen Mari Domingi izatea erabaki genuen, baina genero aldetik halako gogoeta bat egin gabe. Eman genion itxuraren errua Edorta Murua artistak izan zuen, berak marraztu zuelako ipuina. Horrela hasi ginen. Gero Ikastolen Elkarteko material sortzen ibili nintzenean, Mitxel Muruari gure ohidura kontatu eta berak Gabonetarako ipuina idatzi zuen. Horrekin hasi zen zabaltzen gaia. (...) Kuriosoa egiten zait azken urteotan honi buruz egiten ari diren zenbait irakurketa genero bidetik, baina tira, zabaldu bada, gizarteak beharrezkoa ikusi duelako izango da, ezta?



Ipuinaren irudi bat

Mari Domingiren ipuina (Mitxel Muruarena, naski, oso laburtua):

Mari Domingi, emazte behartsu eta bihotz handikoa, ikatza ematera joaten da etxez etxe. Baina jendea trufatzen da hartaz arropa itsusia duelako. Olentzero konturatu da eta deitzen du:

- Herrira joango zara iragartzera opari batzuk banatuko ditudala?

Hala egin zuen Mari Domingik, baina herriko harroputzek sinetsi ez eta burla egin zioten.

Gabon Gava heldu zenean, ohi bezala gose eta tripa-zorriek kirri-karra egiten ziotela oheratu zen Mari Domingi. Noiz eta Olentzero joan baitzitzaion kapoi erre bat eskuan. Elkarrekin afaldu, eta gona eder bat ere oparitu zion Olentzerok. Gero biok joan ziren opariak banatzera - eta harroputzei ikatza. Eta lana bukatuta elkarrekin bizitzera joan ziren mendira. Geroztik Gabon Gavero etortzen dira zintxo izan diren haurrei opariak ekartzeko eta gaizki portatu direnei ikatza (argitaratu diren bertsio berrietan ez da ikatzik).



3. MARI DOMINGIRI KRITIKAK

Mari Domingi 1996tik aurrera zabaltzen hasi zen Euskadi osoan eta nonahi dugu orain, Hegoaldean zein Iparraldean. Hainbestearino zabaldu zen non kontrako erreakzioak sortu baitziren.

- Batzuek zioten, emaztea aldean ezartzen bazaio, tradizioko Olentzero arlote ezkongabe ezin dela gehiago gauaz parrandan ibili eta laguntxoekin mozkortzen (ezkonduen artean parranderorik ez omen da Euskadi osoan).

Hots, Oiartzungo kopla zahar batzuetan emaztea badu Olentzerok:

Olentzero guria / fortuna tristia; jantziak saldu diozka / bere emaztiak / Horra, horra... (Lecuona 1922).

Beste afinitaterik ere badute biok. Janzteko maneran parekoak dira bi pertsonaiak. Arlote da Olentzero, eta zarpail dabil Mari Domingi (gona zahar). Bestalde, berdin aurkezten dira biak: "Horra Mari Domingi", "Horra, horra gure Olentzero".

- Mari Domingiren oraingo janzkera deitoratzen dute zenbaitek, Erdi Aroko dama batena ez datorrela bat azken mendeetako Olentzeroren baserritar itxurarekin (blusa eta abarkak).

- Gaitzespen bizienak generoaren inguruan azaldu ziren, nahiz eta Bagera elkartekoen holako asmorik ez izan emazte bat aukeratu zutenean. Batzuek kritikatzten dute Olentzerori bikotekide femininoa emanik, eredu heterosexuala sustatzen dela. Eta genero berdintasuna bermatu ordez, gizonak duela protagonismoa, emaztea menpeko laguntzaile hutsa delarik, nagusiaren eskutitzak biltzen dituen idazkaria. Eta eraso gogorrena, emakumea jatsa eskuan ageri den irudi baten kari heldu zen: "Mari Domingi go home" (2013an, dantzan.eus)

"Mari Domingi go home"

Horiek hola, Olentzero bat eta bakarra aldarrikatzen dute, ez maskulino, ez feminino, queer baizik.

"Go home" horren kontrako erantzunak ere izan ziren, bistan da.

Aurten, Argia astekarian (2023-01-29) berritu du arbuioa Itxaro Bordak. Deitoratzen du aita-ama-haurra familia eredua bultzatzea; eta sozialki ezkongabeak arbuizatzen dituen erdeinuzko hitzak gogoratzen ditu: *karlos, mutxurdin*, etab. Elizanbururen kantuan badira: "Lau andre, hiru mutxurdin, bat alarguna jarri irrik itzalean, harri xabal-xabal baten gainean ari ziren, ari ziren trukean".

Olentzeroren lagunek erantzun zuten bazela garaia Mari Domingi plazara ateratzeko.



4. NOR DEN, NONDIK DATORREN

Mari Domingiren jatorria kantu batean dugu, Eguberriko kantu herrikoi batean. Gipuzkeraz da, “dezu” eta “atoz” formek erakusten dutenez (“atoz” = zatoz, hikako forma “hator” da; “atozte” forma ere bada Gipuzkoan).

Abestiaren hitzak

Bertsu oso ezagun horren ondoan beste lau badira (ikus bukaeran), batzuk Jose (Pepe) Artola bertsolariak ezarriak. “Zuka”tik “hika”ra pasatzen dela.

*Orra Mari Domingui, beguira orri,
Gurequin naidubela Belena etorri
Gurequin naibadezu Belena etorri
Atera biarco dezu gona zar ori.*

Horra Mari Domingi, begira orri,
gurekin nahi duela Belena etorri.
Gurekin nahi badezu Belena etorri,
atera beharko dezu gona zahar hori.
(Z)atoz, (z)atoz, zure bila nebilen ni, (bis)
(z)atoz, goazen, adora dezagun
Belenen jaio den haur eder hori.

Pepe Artola (1864-1929)

Nondikan atera den gona zar ori?
Berririk baldin baden gorde zan ori;
arriturik ziagon Belengo erria,
aterakin ortik farragarria.



“Zatoz” eta “Goazen” Eguberriko kantetako topikoak dira, inguruko eskualdeetan. Horrela euskaraz, okzitaneraz, latinez, frantsesez.

Anem a Bethlém adourar lo Messias
Pastous, anem toutis en foulo,
Allons vite à Bethléem clip a clop a clip a clop Jésus est né
Allons ensemble à Bethléem, doudaï, doudaï, doudaï, da!

(z)atoz(te), goazen

(Z)atozte bai artzaia,
(Z)atozte nigana;
Ganaduak utzirik
Goazen Belenera

Goazen guztiok Belenera
Jesús adoratzera

Arkume ta gaztakin
Goazen Belenera

Goazen, goazen Belenera
Saltotaka brinko eginaz

Goazen goazen Belenera zar eta gazte guztiok

Anem a Bethlém adourar lo Messias
Pastous, anem toutis en foulo,

venite, vamos

Adeste Fideles
Laeti triumphantes
Venite, venite in Bethlehem (...)
Venite adoremus (tris)

Allons vite à Bethléem /clip a clop a clip a clop / Jésus est né



Allons ensemble à Bethléem, doudaï, doudaï, doudaï, da!

Arre borriquito
Vamos a Belén
Que mañana es fiesta
Y al otro también

Vamos pastores vamos
Vamos a Belén

José Antonio Santesteban eta Jose Maria Usandizaga

1862an, Jose Antonio Santestebanek (1835-1906) harmonizatu zuen kantu bilduma batean, eta geroago Usandizagak (1887-1964) abesbatzენტzat moldatu. Baina lehenago kantatzen zela badakigu Pio Barojari esker.



Pio Baroja, 1872-1956




Pio Barojaren *Las inquietudes de Santi Andia*, 1911 eta *Familia, infancia y juventud*, 1845

Jose Mari Carrererek blog batean azaldu zuen bezala, Mari Domingi aipatu zuen Pio Barojak Oroitzapenak liburuan. Amamari eta izebari entzun zien beren garaian emakume xoro bat, Kurriki deitzen zutena, ibiltzen zela etxez etxe. Emazte horrek, "mahai batean jaiotza muntatzen zuen; eskuan zaharo bat eramaten zuen jaiotzako figurak erakusteko eta, pandereta batez lagunduta, Gabon kantak abesten zituen. Figuretan bazen emakume zarpail bat, "bufona" bat segur, eta Kurrikik hari kantatzen zion orain ere entzuten dudan abesti bat eta horrela hasten dena:

Orra Mari Domingui, beguira orri
Gurequin naidubela Belena etorri
Gurequin naibadezu/ Belena etorri/
Atera biarco dezu gona zar ori.

Kalkula daiteke Barojaren amamaren garaia izango zela idazlea jaio baino 50 bat urte lehenago, 1820an nonbait. Berrehun urte bederen badu orain Mari Domingik.



5. ITXURA ETA JANZKERA

Haren janzkeragatik kritikatu da Mari Domingi, ez duela zerikusia Olentzeroren estiloarekin - eta ez kantuak iradokitzen duen irudiarekin ere. Batez ere burukoa du bitxia. Zergatik holakoa? Euskal kolorea (*couleur locale*) emateko?

Baina badakigu nondik datorren buruan daraman tuturru hori. Aspaldikoa dela erakusten dute hainbat dokumentuk. Baina, euskalduna ote da?

Mendietaren margolana


Dokumentu ezaguna da Francisco Mendietakoak 1609an margotu zuen obra (Lancre-ren urtean; 1610 Logroño-ko autodafé) 1476ko gertakari bat gogoratuz: “Bizkaiko Jaurgoko Foruen zina, Gaztelako Fernando V-k (Katolikoak) egin” (*La Jura de los Fueros del Señorío de Vizcaya por Fernando V de Castilla*). Obra Gernikako junta-etxean dago, eta hartan azaltzen diren emazteek tuturru klase guztiak dituzte: luzeak, motxak, tenteak eta okerrak.




Marie de Bourgogne 1457an (Karlos V.aren amama)

Aurrekariak bilatu zaizkio tuturruari. Batzuek diote “hennin”-etik datorrela, buruko oso zabaldua Europako gorreetan, batez ere Borgoinan.

Baina dokumentu zaharragoa Gaztelan topatu du Amaia Medinak, Santo Domingo de Silos monastegiko klaustroan margotua 1384an (Amaia Medina Gonzalez, “El tocado corniforme femenino en la baja Edad Media”, ed. Santanderreko Unibertsitatea 2021)



Santo Domingo de Silos Kalostrapeko sabaia



Santo Domingo de Silos-ko Blancaflor (1384) (*Floire et Blancheflor*, kondaira, 1160tik landa oso zabaldua).


Medinaren artikularen arabera, adar-antz (corniforme) burukoa Kantauri itsasoko kostan azaltzen da, Galiziatik Pirinio Atlantikoetaraino, eta barneko goi-ordokian ere Gaztelako eta Aragoiko iparraldean. Gaskoinian ere badago. Euskadi baino eremu zabalagoa du, nahiz hemen den bereziki goraipatua. Eskualde horietara heldu ziren bidaiari asko harritu ziren burukoaz, hartaz irri ere egin zuten zenbaitek, absurdo iruditzen zitzaielako.

Karlos V.a izango zen printzea Asturiasera joan zenean 1517an, haren kronikari (Laurent Vital) esan zioten emakumeentzako karga astuna zela (*llevaban ellas esos adornos con pesar*), batez ere udan, eta otoi, printzeari eskatzeko usadioa ken zezala. Zahar batek kontatu zion buruko horiek zigor bat zirela: herrialde hartako gizonak kristautasunera konbertitu zirenean, emazteek uko egin zuten eta, beren semeak kristau ez ikusteko, hil egin zituztela. Krimena zigortzeko inposatu zizkieten buruko tramankulu neketsuak.

Alderantziz, *Miguel de Alonsoteguik*, XVI. mendeko fraideak, kontatu zuen Gipuzkoan senarrek debekatu nahi zietela emazteei burukoa Priaporen zakilaren irudikoa zelako (Julio de Urkijo), eta horretaz auzi bat egin zela. Apezpikutegiak ere debekatu nahi izan zien elizara sartzea burukoa jantzita zutenei.



Priapo jainkoa



Baionako erakustokiko tapizeria

Frantziako Eleonor erregina (Karlos V.aren arreba) Baionara etorri zenean 1530ean, Sébastien Moreau kronikariak tuturrak ikusi zituen zaharren buruan bereziki. Adineko emazteek eta senarrek ez zieten jantzen uzten gazteagoei, nahiz haiek ere gutziziatzen zituzten: kronikariari esan zioten pozik ziratekeela erregeak haien zat lortu izan balu tuturrak eramateko eskubidea. Emazte ezkonduak jantzen zutela eta alargunek makurtua zeramatela dio Montaignek (*livre III chap. V*) eta gauza bera Lancre-k (Veyrin). Beste batzuen arabera beltza zen alargunena.

Garestia zen burukoa, oihal asko hartzen zuen: Gipuzkoako biltzar batek (Deban, 1434an) debekatu zuen 26 metro baino gehiagoko oihal fin erabiltzea (eta oihal lodiko 7 metro). Medinaren ustez, egoera zibila eta sozial maila adierazten ditu: handiago eraman eta aberatsago izatea esan nahi. Halere, XV. mendean herrikoi bihurtu zen.



6. BURUKOAREN ARRAKASTA

Herrikoia, burgesa zein noblea, arrakasta handia du orain Euskal Herrian: sorgin eta Mari Domingi guztiak tuturrudunak dira, salbuespen gutxi: Miranda de Arga herrian, 2010ko abenduaren 11n atera zen, Olentzeroentzako haurren eskutitzak bildu eta goxokiak eman zituen.

Miranda de Arga 2010



Donostiako Udalak 2001ean erabili postala. Leitzakoa bezalako Olentzero emaztea ote? ala Mari Domingi?

Pudibonderia (ahalkea) gaineratzen ahal zaio tuturruari eta muturreraino eraman da zentzu literalean, Mari Domingiri muturra estaliz.



Mari Domingi estaliak (Tolosa 2012) (Elgoibar 2010)



Mari Domingi + COVID maskara (Azkoitia 2020) (niqab?)

Halako Mari Domingik ezin edan, ezin pipatu, ezin mintzatu. Olentzerori onartzen zaiona ukatzen zaio hari. Zer helburutan estaltzen zaio emazteari ahoa, isilarazteko ez bada. Itxurak, gainera, konnotazio larriak ditu (qataritak, wahabbitak?). Tuturrua sinbolo faliko izanik, emazteari aginte ematen diola esaten dute batzuek. Halakorik! Falokraziari mailegatu behar diote emazteek beren burua ahalduntzeko tresna?



Mari Domingi ETB2ko “Vaya semanita”n

ETB2ko trufazko emankizun batean, bestelako Mari Domingi azaldu zen, papo-zabal eta mini-gonarekin.



Bilboko Udalan Olentzero-Mari Domingi dotoreak



Bilboko Erregeak

Holakoak errege magoen kabalkaden mimetismoa dirateke, erakutsi nahi litzateke euskaldunak ez garela baserritar zirtzilak, dirdira eta urreria ere baditugula.



Bilboko errege kabalkada

Eguberriko kabalkadek *luna park* airea dute.



Almeriako



Toronton



7. EGUBERRIKO PERTSONAIK INGURUKO KULTURETAN

Aldakorrak eta oso desberdinak aurkituko ditugu, batzuk femininoak, aski sinpatikoak.

Tante Arie

Jura aldean (Montbéliard) Tante Arie deitzen den andrea (jatorrian lamina antzara-zangoa bere astoarekin ibiltzen da etxez etxe, sariak edo zigorrak banatzen (zentzu propioan, ozpinean busti zigorrez jotzen), noiz ona, noiz gaiztoa.

Eguberriko eskaleekin ere ibiltzen da, tradizio zaharreko Olentzero bezala.



NOËL ALLEMAND
Montée sur un âne qui brail sans discontinuer, la fée Tante Arie distribue des jouets...



Italiako Befana

Italian Befana-k (Epifania, Errege Magoak, urtarrilaren 6an) zirtzil itxura izaten du eta opariak zein ikatza banatzen.

Befanaren kantuak bertso asko ditu; hemen bat bakarrik azaltzen da.

Befanaren legenda: errege magoak Bethleemera ari zirenean, bidea galdegin zioten atso bati, eta berekin joateko proposatu. Atsoak ezetz esan, baina laster damutu zen eta saski bat goxokiz eta fruitu lehorrez beteta, magoen bila abiatu. Ez baitzituen atzeman, saskian zeramatzanak haur zintzoei banatu zizkien, eta ikatza bihurriei. Befanak airean dabil erratzaren gainean, eta erratz eskuan ere irudikatzen da. Sorgin itxura izaten badu ere, ez da gaiztoa.

Euskal Herrian ere pertsonaia nahiko desberdinak: Jesus Haurra, San Nikolas, Erregeak, Olentzero desberdinak (Père Noël berriagoa da).



Gauaz heldu da Befana
Oinetakoak dena urratu
Ta gona bete betatxu
Gora ta gora Befana

San Nikolas, Père Noël, Père Fouettard

Badira pertsonaia bakoitzak, bikoitzak eta hirukoitzak. Bat da Olentzero, baina izaera bikoitza du, ona eta gaiztoa. Bi dira San Nikolas eta le Père Fouettard, bata ona, bestea tzarra. Hiru erregeak, zintzoak (nahiz ikatza ekartzen duten). Denak sexu berekoak.

Pertsonaia horietan aldaketak izan dira: Jesus Haurra ez da kasik azaltzen, Amerikan San Nikolas apezpikua Santa Klaus bilakatu da: mitra galdu du eta boneta irabazi. Frantzian Père Noël eman du (beharbada San Nikolas + Father Christmas).

Olentzero ere aldatu da: eskaleekin ibiltzetik emaila (oparigilea) izatera pasatu da.

Bestalde Leitzako Olentzero edozein generoko izan daiteke: gizona, emaztea, halloween kuia-burua (horrek esan nahi du Domu Sainduko hilen etorrerarekin lotura duela, urte bukaerako beste hainbat eskalek bezala).



Leitza: gizona



Leitza: emazteak



Leitzako kuia-burua. Leitzako gazteak hasi dira "aintzinean bezala"ko Olentzero egiten.

Aukera aski handia dugu: hobesten ahal da Leitzako Olentzero feminino bat? Olentzero queer? Mari Domingi bakarrik Olentzerorik gabe (Donostiako Udalaren postaleko figura?).

Zaila izango da Olentzerori gizontasuna kentzea. Orduan, zer da hobe, pertsonaia maskulino huts izatea ala bi generoak azaltzea (Olentzero-Mari Domingi)? Dantzan blogeko "Mari Domingi go home" artikulua "Ainhua" batek dio: *Izan ahal daiteke Mari Domingi Olentzeroren kidea? Batera lan egiten eta opariak banatzen, senar-emazte edo bata bestearen azpian egon gabe? Erratza kenduko bagenio eta biak gutunak irakurtzen jarri? Txarra al da emakume eta gizonen arteko kolaborazioa? Eman al genezake mezu positibo bat Mari Domingiren figurari esker?*



8. MARI DOMINGI. HAIZU DEA TRADIZIOA ALDATZEA?

Mari Domingik orain hartu duen funtzioa berria da. Kontua da nor den haizu tradizio bat aldatzera. Seguraski praktikatzen dutenak. Ez ahanztz tradizioa estakuru izan daitekeela emazteak baztertze (Irun-Hondarribiko alardeetan). Baina edozein aldaketa onargarria al da? Galdera asko.

Mari Domingi hemen dago, jendartearen nahiari zor dio arrakasta eta seguraski ez da gibelera joango. Nolakoa nahi dugu?

Abestian erdeinatua izatetik Eguberriko pertsonaia maitatua izatera iragan da. Maitatua baina bere gona zaharra eta pobre itxura atxiki behar lituzke. Eta bide nabar buru gaineko tresna hanpatu hori utz baleza... Befana eta Tante Arie lañoak izatea ez da kasualitate: ipuin pertsonaia batzuk bezalakoak dira, itxura zarpailtsuan gordeak dauzkate ahal miragarriak.

Horrekin batera aipatzekoa da gaiaren edulkorazioa: sarean aurkitzen diren ipuin batzuen mindulinkeria, pertsonaia azukreztatutak, on-onak, amalurraren adoratzailerik zintzoak.

Horrelako solasak ez daitezke haurrentzako onuragarriak izan.

Olentzero bikoitza izan da, noiz ona noiz gaiztoa. Kontrarioen batasun horrek egiten du interesgarri, baina gero eta gutxiago aurkitzen da.

1. ERANSKINA: Mindulinkeriak

Sarean Mari Domingi inguruko bideo batzuetan dena da goxo eta loretxo, melenge bilakatzeraino. Onuragarria ote zaie haurrei?

Bideo batean (*Mari Domingi Olentzero: amalurraren opariak*) kontatzen da gure arbaso artzainak menditik jautsi zirenean, Olentzero eta Mari Domingi mendian gelditu zirela ikatza egiten, animalia eta loreekin. Maite dute Amalurra, egunero hitz egiten diote goxo-goxo, eta eskerrak bihurtzen ematen dituen fruituengatik. Zoriontsu bizi dira Amalurren babesean. Urtaro bakoitza goxotasunez eta magiaz ziprizzintzen dituzte bazterrak. Udaberrian Amalurrari kantatzen diote fruituak eskatzeko. Udan, suaren inguruan dantzatu eta, iturrira joaten dira aurpegia freskatzera. Udazkenean orbelean jostatu eta gaztaina errean jan. Neguan, elurra denean, supazterrera biltzen dira galtzagorriekin batera, eta haien laguntzaz umeentzako opariak prestatzen dituzte.

“Amalurrak eskerrak ematen dizkigu, bera zaindu, maitatu eta babesteagatik, horretarako Olentzero eta Mari Domingik galtzagorrien laguntzaz sortutako opariak ekartzen dizkigu”.

Abenduaren 24an opariak banatzera badoaz Olentzero eta Mari Domingi. “Begiak malkoz betetzen zaizkie; elkarri laztan bana eman eta: goazen ba!”. Badatoz gugana. Amamak kontatutakoak urtero gogoratzen ditugu aldapan behera ikusten ditugunean. Malko eta irribarre artean, urduritasun eta beldurra bizipoz bilakatzen dira.

2. ERANSKINA. ARGIA astekarian, azken polemika: Itxaro Borda vs Olentzeroren lagunak

ARGIA, 2023ko urtarrilaren 29a

MARI D.

Itxaro Borda

Olentzerori emazte bat gehitu diotela ikusten dudana aldi oroz, irri sarkastikoz lehertzeko gogo pizten zait. Gure ikazkina, azken urteotan, Mari Domingirekin agertzen da karriketara, haurrek bikote horretan beren gurasoena zehatz ikusten dutela: aita, ama, umeak. Besterik ez. Gauza ezaguna da, txikiak hetero-araua ez dakarren edozein ereduarekin txokatuak izan daitezkeela, ez direla traumatizatu behar, bereziki Eguberri egunetan.

Badirudi ezkon edo bikotekide gabea izatea ahalkegarria dela: ezkontzak zentzuzko zaitu alabaina eta gizartean leku on bat segurtatzen dizu. Familietako osaba edo izeba sumituaren jokotik kanpo zaude, ezkerreko hatzean eraztun bat duzun ber. *Mutil* edo *neska zahar*, *mutxurdin*, *karlos*, *ezkongabe*, hainbat hitz baditugu euskaraz egoera lotsagarri horren errateko, nahiz eta baserri guneetan, Pierre Bourdieuk ederki aztertu zuen bezala Bearnoarentzat, laborari-etxeetako gizonen edo emazteen segidarik eza egiazko tragedia bilakatzen den.

Lau andre, *hiru mutxurdin*, *bat alarguna* ari ziren trukean harri xabal baten gainean... Elizanbururen algara gordina gaur ere jasanezina al zaigu?

Kuku Mari Domingi!
Maridomingi taldea Olentzeroren lagunak
2023ko otsailaren 27a

Jalgi hadi kanpora!

Azkenean jalgitzen zara zure kutxatik, berrehun urtez gordea, kukutua, tirante baten barnean atxikia. Denak zutaz mintzo negubururo azken 30 urtez baina kasu eginez zuri, ez dio itzalik ekarri behar Olentzerori. Hor dugu XXI. mendea, parekotasuna, berdintasunaren mendea eta Mari Domingi harro bere lekua eskuratzen. Mari Domingiri joanago eta gehiago fama hazten ari zaiola ohartu gara. Haurren solaskide eta helduen solasgai, gero eta leku handiagoa hartzen ari da Ipar Euskal Herriko plazetan, eskoletan eta prentsan. Arrakasta honek erakutsi digu neguburuaren garaian segurik bere lekua egiten ari duela gaur egungo jendartean. XIX. mendeko kantu batean luzaz lo egonik, horra non, 2012tik, gorputz eta haragi agertzen zaigula, berdintasunaren izenean, Olentzerorekin eskuz esku haurrei argiaren magia zabaltzen. Zer gertatu ote zaio Olentzero donadoari bat-batean gona gorridun emazte gazte eta panpox batekin maitemintzeko? Ez ote zuen konpainia aski bere astoarekin? Ez ote zion laguntza herriko aspaldiko Piarres lagunari eskatzen ahal? Olentzerok ez zuen uste emazte baten laguntza ukaitean, batzuek haren emaztetzat hartuko zutenik. Mari Domingi Olentzeroren partaide berria da, neholara ere ez esposo edo bikote laguna. Eta Olentzero zinezko gizona ote da, eta Mari Domingi emaztea? Itxarok ezagutzen al du Mari Domingo?

Olentzeroren lagunak, Maridomingi taldea

3. ERANSKINA. Abestiari gaineratu koplak (Artolak eginak seguraski)

Mari Domingi

1

Orra Mari Domingi, begira orri,
gurekin nai dubela Belena etorri.
Gurekin nai badezu Belena etorri,
atera bearko dezu gona zar on.

Atoz, atoz. zure billa nebillen ni;
Atoz, atoz. zure billa nebillen ni;
Atoz goazen, adora dezagun
Belenen jaio dan Aur eder ori

2

Nondikan atera'den gona zar ori?
Berririk baldin baden gorde zan ori;
arriturik ziagon Belengo erria,
aterakin ortik farragarria.
Atoz, ataz, ...

3

Jo dezan panderoa ik, Antonika,
nondikan etorri aiz orren korrika?
Ezin esplikatuturik misterioa,
Belenen jaio dala Aur dibinoa
Atoz, atoz

4

Ojua eta dantza denak batian
egin zagon guztiyak oso pakian;
Jesusen izenian dantza dezagun,
bere laguntza gero izan dezagun.
Atoz, atoz...

5

Irrintzi eta poza algararekin,
ori bear diñagu guk elkarrekin
Pozez adora zagon Jesus Aur ona,
Berak eman dezaigun gaur zori ona.
Atoz, atoz...